

GOTZON GARATE BEKA

IV. Deialdia - 2022

Ikerketa Esparrua:

“Hizkuntza aniztasuna Elgoibarren: jatorri atzerritarreko bizilagunak eta euskara”

Eskabideak eta izen-ematea:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan
Santa Ana kalea 2, 20870 Elgoibar
Webgunean: www.elgoibar.eus

Eskaerak aurkezteko epea:

2022ko apirilaren 7a

Informazioa:

Elgoibarko Udaleko Euskara Saila:
euskara@elgoibar.eus
943744366



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

GOTZON GARATE BEKA

IV. Deialdia - 2022

**“HIZKUNTZA ANIZTASUNA ELGOIBARREN:
JATORRI ATZERRITARREKO BIZILAGUNAK ETA EUSKARA”**

GOTZON GARATE BEKA – IV. DEIALDIA
“HIZKUNTZA ANIZTASUNA ELGOIBARREN: JATORRI ATZERRITARREKO
BIZILAGUNAK ETA EUSKARA”

1. BEKAREN EZAUGARRIAK

- 1.1. Bekaren helburua: Elgoibarren bizi diren jatorri atzerritarreko pertsonak euskararekiko eta euskal kulturarekiko dituzten pertzepzioak aztertzea eta hizkuntz integrazioan laguntzeko, etorkizunean egin litekeen esku-hartzean kontuan hartu beharreko gakoak identifikatzea.
- 1.2. Zenbatekoa: Bekaren zenbateko osoa 10.000 eurokoa izango da.
- 1.3. Iraupena: Lana egiteko epea 8 hilabetekoa izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.
- 1.4. Lana euskaraz aurkeztuko da.
- 1.5. Lana Udalaren Herritartasun Batzordearen ardurapean egingo da.
- 1.6. Udalak ikerketa proiektua moldatzeko edo egokitzeko aukera izango du, ahal dela, bekadunarekin adostuta.

2. ESKATZAILEAK

Beka norbanakoek zein lantaldeek eskatu ahal izango dute. Kasu horretan, Udalaren aurrean ordezkari izango den zuzendari arduraduna izendatu beharko da. Eskatzaileak erdi edo goi mailako unibertsitate titulua izan beharko du, eta EGA edo agiri baliokideren bat. Eskatzaileak “Hizkuntza aniztasuna Elgoibarren: jatorri atzerritarreko bizilagunak eta euskara” gaiari buruzko txostena aurkeztu beharko du, non Elgoibarrera atzerritik etorri diren bizilagunek euskararen eta euskal kulturaren inguruan dituzten hautemateak aztertzeaz gain, horien hizkuntza integrazioan laguntzeko, etorkizunean egin litezkeen esku-hartzeetan kontuan izan beharreko gakoak landu beharko baititu.

3. ESKABIDEAK

- Eskabideak Elgoibarko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ, Santa Ana kalea 2, 20870 Elgoibar) edo modu telematikoa (www.elgoibar.eus) aurkeztu beharko dira, “Gotzon Garate Bekaren IV. deialdia” erreferentzia jarrita, honako agiri hauekin batera:
- a) Eskaera orria eta zinpeko orria, behar bezala beteta eta sinatuta.
 - b) Espediente akademiko xehatua eta osoa, jatorrizko agiriaren edo konpultsatutako fotokopiaren bidez. Lantaldeen kasuan, partaide orok aurkeztu beharko du espediente akademiko osoa.
 - c) Curriculum Vitae. Lantaldea baldin bada, partaide guztiena aurkeztu beharko da.
 - d) Lana nola egingo den azalduko duen memoria bat, ahalik eta modurik zehatzenean (15 orrialdekoa gehienez ere).
 - e) Eskatzailearen edo eskatzaileen nortasuna egiaztatuko duten agiriak (NANa edo baliokidea) eta datu pertsonalak: gaur egungo helbidea, telefono zenbakia, e-maila.
 - f) Eskatzailea onuradun izatea eragotziko duen kausaren batean sartuta ez dagoela eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak edo zinpeko aitortpena.
 - g) Eskatzaileak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu.

GOTZON GARATE BEKA – IV. DEIALDIA
“HIZKUNTZA ANIZTASUNA ELGOIBARREN: JATORRI ATZERRITARREKO
BIZILAGUNAK ETA EUSKARA”

4. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak 2022ko apirilaren 7ra arte aurkeztu ahal dira.

5. ESLEITZEKO PROZEDURA

Beka hau norgehiagoka bidez emango da. Beka esleitzeko honako irizpide hauek izango dira kontuan:

- a) Eskatzaileen espediente akademikoa eta curriculum: 0-15 puntu.
 - b) Ikerketa proiektuaren interesa, zuzentasuna eta bideragarritasuna: 0-35 puntu.
- Eskatzaileek, beka eskatze hutsagatik, uko egingo diete Epaimahaiaren ebazpenaren aurkako egintza judizial edo judizioz kanpoko egintza guztiei.

6. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

- Adierazitako merezimenduak egiaztatzea eta bekaren onarpena sinatzea, beka esleitu zaiela jakinarazi ondorengo 7 egunetan.
- Aurkeztutako proiektuaren txostena (egindakoa eta egiteko dagoena) bidaltzea bi hilabetetik behin.
- Aurreikusitako planean edo iker-taldearen osaketan egindako aldaketen berri ematea. Aldaketak egiteko, Udalaren baimena beharko da.
- Udalak izendatutako adituek emandako gomendioak betetzea eta lana egiteko prozedura jarraitzea.
- Bekaren amaieran lan osoa aurkeztea euskarri informatikoan, eta lanaren bi ale, inprimatuta.
- Ikerlana emateko azken epean, justifikaziorik gabe, lana amaitu ez bada, Udalak zigorren bat jarri ahal izango die bekadunei. Dena dela, Udalak baimena eman dezake aipatutako epea luzatzeko, horretarako arrazoiak badaude.
- Beka hau bateraezina izango da beste edozein ikerketa-beka edo lan finko osorekin.

7. ORDAINKETAK

1. Kopuru osoaren %30, beka ematen den une berean.
2. Kopuru osoaren %30, beka ematen denetik bost hilabetera. Horretarako, egindako lanaren eta egingo denaren azalpen-txostena aurkeztu beharko da.
3. Gainerako %40a, bekaren bukaeran, ikerketa lana aurkeztu eta Jarraipen Batzordeak onartu ondoren.

8. ARGITALPENEA

Deialdia Udalaren webgunean (www.elgoibar.eus) argitaratuko da, eta laburpena, berriz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/GAO>).

9. INFORMAZIOA

Elgoibarko Udaleko Euskara Saila:
euskara@elgoibar.eus
943744366